

ezagutu

zeureganatu

eraldatu

**PLAN
ESTRATEGIKOA
2015-2018**

La★Salle 2015-2016

Premiazkoa da eta bidezkoa

ERRONKA	BALIZKO EKINTZAK
<p>1. Ikasturte guztietan proiektuen bidez lan egitea Koordinazio Pedagogiko Taldeak (KPT) zehazten dituen oharren arabera</p>	<p>1.1 Dauden proiektuak aztertzea. 1.2 Koordinazio taldeak proiektu batek eduki behar dituen ezaugarriak zehatz ditzala, horretarako kontuan hartuko dira bertikaltasuna, adimen anizkoitza, IKT, HARA, baloreak, ebaluazioa, ... 1.3 Koordinazio Pedagogiko Taldeak proiektuak burutzeko egin beharreko prestakuntza ezar dezala. 1.4 ZT-ak, asteazkenetarako egutegia prestatzean, proiektuen diseinuak egiteko behar den denbora kontuan har dezala. 1.5 KPT-ek ezarritako irizpideen arabera, proiektuak diseinatzea edo aldatzea.</p>
<p>2. Proposamen metodologiko zabala egitea, egiten ari garena sartu eta koherentzia eman diezaion eta lan egiteko modu berriak erants diezazkion. (KPT)</p>	<p>2.1 Ikastetxean erabiltzen ari garen metodologiak aztertzea. 2.2 Noizbehinka berrikuntza lantzeko prestakuntza eskaintzak aztertzea. 2.3 Irakasleen artean barreiatuko den metodologietan prestakuntza plan bat egitea. 2.4 Gune desberdinen (DBH eta Batxilergoko liburutegia, DBHko Aretoa, DBHko beheko solairua, Izartxo lokalen erabilera Lehen Hezkuntzako sarrera, ...) erabilera aztertzea eta ikertzea. 2.5 Sektorearen ereduari jarraituz (IA, IPK, ...), legeak ezarritako irizpideei erantzutea. 2.6 Proposamena gauzatzeko familien, ikasleen eta beste erakunde batzuen partaidetza nola gauzatu aztertzea.</p>
<p>3. Irakatsitako hizkuntza guztien (Ingelesa B2, Euskara B2-C1, Frantsesa B1 eta Alemana B1) maila egokia ziurtatzea.</p>	<p>3.1 Ingeleseaz irakasteko irakasleen birziklatzea eta gaitzea planifikatzea. 3.2 DBH/Batxilergoan arloetan ingelesezko irakaskuntzaren ezarpenarekin jarraitzea. 3.3 Frantsesaren eta alemanaren neurketak finkatzea eta ebaluatzea. 3.4 Hizkuntza desberdinetan arlo komunikatiboa lantzen dela ziurtatzea. 3.5 Hizkuntza desberdinetan ikasleak agiriak lortzera bultzatzea.</p>



ERRONKA	BALIZKO EKINTZAK
4. Haur/Lehen Hezkuntzan, IKTen erabiltzeko aukera zabaltzea eta DBH eta Batxilergoan euren erabilera finkatzea.	<p>4.1 Sallenet-en erabilerarako oinarrizko informazioa, irakasleek gutxieneko batzuk eduki ditzaten.</p> <p>4.2 IKT (pdi, beste gailu batzuk, 1x1 gailuak, finantziarioa, .) erabiltzeko inbertsioak aurreikustea.</p> <p>4.3 AUKERA programan parte hartzea eta gure heldutasun maila teknologikoa hobetzeko urrats batzuk ematea.</p> <p>4.4 IKT-ren maila ertaineko agiria lortzea.</p> <p>4.5 Gailuetan gorabeherak antzemateko eta jakinarazteko modu arina bilatzea.</p> <p>4.6 Programa informatikoen erabileraren ikaskuntza bultzatzea.</p> <p>4.7 Ikasleen artean, IKTen erabilera egokia bultzatzea (baliabide materialetan ez ezik sare sozialen erabileran ere).</p>
5. Lehen Hezkuntzako 3. ziklotik aurrerako ikasle eta irakasleentzat atzerriko ikastetxeren batekin lan eta lankidetzaren programa bat egiten hastea.	<p>5.1 Beste ikastetxe batzuetan egiten ari diren programak (gobernuak, fundazioak, <i>Comenius, eTwinning, Olarex, Leonardo...</i>) aztertzea.</p> <p>5.2 La Salle beste ikastetxeekin aukerak bilatzea.</p> <p>5.3 Beste ikastetxe batzuetan egiten diren trukaketak aztertzea gureak hobetzeko.</p> <p>5.4 Programaren batekin aukeratzea eta saiatzea.</p>
6. Aniztasunari Arreta prozesuan ikasleen integrazioan aurrera egitea.	<p>6.1 Erabaki pedagogikoak eta baliabideak ildo berean jarri HBBko ikasleek eta arreta berezia edo indartzea behar duten ikasleak gelako jardueretan modu jarraituan integratu ahal izateko.</p> <p>6.2 Irakasleak ikasteko arazoak dituzten ikasleekin, ezagutzan, barneratzean eta lan egiteko moduan prestatzea.</p> <p>6.3 Ikasle hauen (HBE, errefortzuak, jarrera zailtasunak, ...) laguntzan eta jarraipenean parte hartzen duten pertsonen arteko koordinazioa ziurtatzea.</p>



ERRONKA	BALIZKO EKINTZAK
1. HP eta PP-ren bidez Ebanjelizazio Markoa onartzea eta barneratzea	<p>1.1 SMHA-ren irizpideei (ezaugarriak, partaideak, ordutegietan eragina, liberazioak) eta Ikastetxearen beharrei erantzunez, PTren egitura berri bat aztertzea eta egituratzea.</p> <p>1.2 Talde berria abian jartzea eta bere funtzionamenduaren jarraipen-ebaluazioa egitea.</p> <p>1.3 Taldekideak ordezkatzeko irakasleei beharrezko prestakuntza ahalbideratzea.</p> <p>1.4 Ebanjelizatze markoan oinarrituz, bertako pastoraltza planak egitea.</p>
2. Baloreak lantzeko, kulturaniztasun, erlijioartekotasun, axolagabetasun, ingurunearen inguruko heziketa, garapen jasangarri, osasun arloen inguruko jarduerak sartzea.	<p>2.1 Ikastunitateak diseinatzean, balore hauek lantzeko jarduerak egongo direla KPT-k ziurtatzea.</p> <p>2.2 Jarduera hauetako batzuetan familiei laguntzeko eta dinamizatzeko aukera ematea.</p> <p>2.3 Agenda 21-en bitartez, garapen jasangarri, ingurunearen inguruko heziketa, elikadura osasuntsu,... programa bat garatzea, arlo desberdinetan jarduerak txertatuz.</p> <p>2.4 Proegaren bertako taldeak eta Justizia eta Bakea taldeak bidezko merkataritzaren inguruko jarduerak bultzatzen dituzte</p>
3. Gure jardueraren egitasmo eta eta egituretan, aisialdi, gazte pastoraltza eta eskola kirola mugimenduak indartzea.	<p>3.1 Pastoraltzan diharduten hezitzaileek (aisialdia, gazte pastoraltza eta eskola kirola) salletar prestakuntza jasoko dute.</p> <p>3.2 Heziketa ez-formal hauetako hezitzaileen lanaren aitorpenerako eta laguntzarako moduak bilatzea.</p> <p>3.3 Aldeko aisialdiaren markoa gure Ikastetxearen errealitatera moldatzea.</p> <p>3.4 Elkarte Hezitzaileari (irakasleak, irakasle ez diren langileak, gurasoak) aisialdi arloan egiten diren ekintzen berri ematea, bai une zehatzetan bai modu jarraituan, sare sozialen eta web orriaren bidez pastoraltza eta aisialdi arloetako jarduerak jakinaraziz.</p> <p>3.5 WEB orrian Pastoraltza eta Aisialdi arloa edukiz betetzea.</p> <p>3.6 Izartxo Bilbao aisialdi elkarte bihurtu eta elkarte honen jarduera indartzea.</p> <p>3.7 Hezitzaile berrien sartzea bultzatzea.</p> <p>3.8 Izartxo eta Kirol Elkarteko hezitzaileen artean topaketetarako, prestakuntzarako eta elkarrekin lan egiteko uneak bilatzea.</p>
4. DBH eta Batxilergo ako aisialdi egitasmo bat, euren jarduerekin, eskaintzea.	<p>4.1 Bigarren Hezkuntzako aisialdirako lokalen erabilera sustatzeko plan eta araudi bat ezartzea.</p> <p>4.2 Adin hauetakoentzat ikasturte osorako ekimen erregularrak diseinatzea eta garatzea.</p>



ERRONKA	BALIZKO EKINTZAK
<p>1. Danok partaide garen eta bultzatzen dugun Salletar Egitasmo Hezitzailearekiko ilusioa bultzatzea (ikaslearenganako arreta eta hurbiltasuna, erantzun hezitzailearen hobekuntza, heziketa baloreetan, talde lana, ...)</p>	<p>1.1 Ikasturtean zehar, ikasteko asmoz (ikasketa elkarte) alde onak, hobekuntzak, arrakastak, albiste onak, ... konpartitzeko, hiru momentu planifikatzea.</p> <p>1.2 Etapen arteko ekimenak (egitasmoak, ekimen bereziak, ...) partekatzea, baita gauzatzen direnean bertan egonez.</p> <p>1.3 Kontratatu berriko (azken urteetakoak) langileekin, gutxienez, bi topaketa planifikatzea euren lana Egitasmoan nola ari diren bizitzen partekatzeko prestakuntza-ibilbide pertsonalak proposatzea.</p> <p>1.4 Koordinazio Pedagogiko Taldearen ekimenetan parte hartzea eta garapena bultzatzea.</p> <p>1.5 La Salle Ikastetxeetako edota besteetako jardunbide egokietan eta esperientzietan parte hartzea eta gureak ezagutaraztera gonbidatzea.</p> <p>1.6 Gure sektoretako bilkuretan (Misioaren eguna, 24 ordu, salletar topaketak, ...) partaidetza nola handitu bilatzea eta eskualdetako topaketak bultzatzea.</p> <p>1.7 Partekatzen dugun misiotik, gogoeta eta otoitz egiteko leku gisa Kristau Elkarte bultzatzea, modu sortzailean parte hartzea gonbidatuz.</p> <p>1.8 Gure misio hezitzailearen inguruan gogoeta egiteko eta partekatzeko topaketa informalak diseinatzea.</p>
<p>2. Salletar hezitzailearen hazkunde osoa bultzatu eta erraztuko duen laguntza kultura garatzea..</p>	<p>2.1 Pertsona-laguntza plan bat egitea (prestakuntza-, profesio-, identitatearen garapena eta helburuak eta jarraipena hartzen dituena)</p> <p>2.2 Laguntza plana garatzea.</p> <p>2.3 Taldeentzako talde laguntza plana diseinatzea. (PT, GE, KT, Zikloak, Izartxo, Guraso eskola...)</p> <p>2.4 Lan Taldeentzako ZT-ak laguntza Planak abian jartzea (PT, GE, KT, Zikloak, Izartxo, Guraso eskola...).</p>



ERRONKA	BALIZKO EKINTZAK
<p>3. Familién lankidetzarakoa eta komunikaziorako bideak zabaltzea. (Ikus Komunikazio Arloa, 3. Erronka)</p>	<p>3.1 Ikastetxeko taldeetan familién parte hartzea ziurtatzea: Proega Ordezkaritza, Izartxo Elkarte, A21, ...</p> <p>3.2 Ekimenetan (tailerretan, irteerak ikasleekin, boluntarioritza ekimenak, ospakizunak, ...) parte hartuko duten familia taldeen sorrera erraztea.</p> <p>3.3 Ikasturtean zehar ikastaldeetako gurasoekin urtean zehar bi bilera egitea aztertzea, bigarrena ikasturtearen bilakaera modu lasaituan azaltzeko.</p> <p>3.4 Plan Estrategiko eta Proiektu Hezitzailearen berri jakin arazteko bilera zehatz bat egitea.</p> <p>3.5 Famíleiei ikasturte hasierako bileretan ze gai gustatuko litzaiekeen lantzea galdetzea.</p> <p>3.6 Ikastetxeko familién gaitasun eta baliabideak identifikatzea eta erabiltzea (Bilketa sistema sortzea eta euren erabilgarritasuna adieraztea).</p>
<p>4. Elkarte Hezitzaile osorako hobekuntza jarduera, proposamen eta iradokizunetan ikasleén partaidetza bultzatzea.</p>	<p>4.1 Funtzionamenduan ikasleén partaidetza arlo eta egiturak aztertzea (beraiei galdetzea, ...).</p> <p>4.2 Berdinen arteko gatazkak konpontzeko bitartekaritza prozedura berriz abian jartzea.</p> <p>4.3 Batzar teknika lantzeko aukera aztertzea eta esperientziaren bat egitea.</p>



ERRONKA	BALIZKO EKINTZAK
1. Hedapena hobetzeko kanpo komunikazio prozesurako talde bat sortzea.	1.1 Komunikazio Talde bat izendatzea 1.2 Taldea eraginkorra izan dadin irizpideak ezartzea. 1.3 Kanpo komunikazio prozesua berraztertzea. 1.4 Gaurko beharretara prozesua egokitzea.
2. Web orria eguneratuta edukitzea.	2.1 Oinarrizko edukia gaztelaniaz eta euskaraz agertzea. 2.2 Bere kudeaketa erraztuko duen fluxu diagrama erabiliz, nork, zer eta nola agertzen den jakiteko irizpideak ezartzea. 2.3 Aldizka albisteak hizkuntza desberdinetan agertzea. 2.4 Epe zehatz baterako eskegiko diren argazkietarako sarbide pribatua nola sartu aztertzea (aztertu Picassa, Flickr)
3. Familiekin harremanetan jartzeko papera ordezkatzuz komunikaziorako tresna sallenet orokortzea.	3.1 Informazio esanguratsua eskuratzeko familia bakoitzari sarbide gakoa ematea. 3.2 Izena emateko, inkestak egiteko, iradokizunak jasotzeko, ... sallenet tresna gisa erabiltzea. 3.3 Familien %100 posta elektronikoaren bidez, oharrak jasotzea lortzea. 3.4 Informazio hori eskuratzeko Interneterako sarbidea ez duten familiei eremuak eta denborak sortzea. 3.5 Komunikazio taldeak nola egingo diren informazioak ezarriko eta nola egiten diren ikuskatuko du. 3.6 Asebetetze inkestak familien %100 helaraztea lortzea. 3.7 Ikastetxearen bidez beste erakundeek (GE, KT, Familia Eskola, ...) egiten dituzten komunikazioek nola izan beharko luketen aztertzea.



ERRONKA	BALIZKO EKINTZAK
<p>4. Elkarte Hezitzailean zein kanpoan egiten duguna jakitera emanaz, gure kanpo irudia bultzatzea.</p>	<p>4.1 Familiekin egiten ditugun bilerak berregitea itxura erakargarriagoa, dinamikoagoa eta bisualagoa izan dezaten. 4.2 Ordutegitik kanpo, azalpenaren bidez, eginiko proiektuak ezagutarazteko une bereziak ezartzea. 4.3 Atea zabalik egunekin geureganatze eta fidelizatze prozesua bultzatzea. 4.4 Etapa desberdinetan bai gure familiek zein kanpokoek geletako lana bertatik nola ikus dezaketen aztertzea . 4.5 Ikasgelako funtzionamendua ezagutzeko Haur/Lehen Hezkuntzako matrikula berriko familientzako bisitaldiak planifikatzea eta antolatzea. 4.6 Haur, Lehen Hezkuntzako DBH eta Batxilergoko gela baten egun bateko lana grabatzea. 4.7 Argazki edo bideo irudientzako kudeaketa (erabilera eta baliabide materialak) sistema bat diseinatzea prestakuntza elementu gisa artxibatze, publizitaterako erabiltzeko. 4.8 Bideoak eta muntaiak egiteko baliabideak edukitzea eta euren erabilera zuzena eta kudeaketa modua ziurtatzea. 4.9 Langileak, kanpo irudiari begira, gure parte hartzeak eta gure egunerako jarduerak duten garrantziaz kontzientziazteko ekimenak pentsatzea eta gauzatzea.</p>
<p>5. Gure burua ezagutarazteko eta ingurunean parte hartze esanguratsua izateko gizarte eragileekin kontaktuak edota harremanak edukitzea eta indartzea.</p>	<p>5.1 Komunikabideei jakinarazteko ekimen esanguratsuak aukeratzea. 5.2 Parte hartzeko inguruneke ekimenetan ezagutzea. 5.3 Ikastetxeko testuinguru pedagogikoetan kanpo eragileen parte hartzea bultzatzea.</p>



ERRONKA	BALIZKO EKINTZAK
<p>1. Negozio unitate desberdinen emaitza ekonomikoa ezagutzeko aurrekontu-kontrola eta bere analisia hobetzea.</p>	<p>1.1 Horretarako Sareak diseinaturiko tresnak ezartzea. 2.2 Planifikazioa egiteko unean, etapako langileen ratioa urtero ezagutzea eta kontrolatzea.</p>
<p>2. Ikastetxearen beharrei erantzuteko egin beharreko inbertsioak aztertzea eta epe luzeko inbertsioen barruan sartzea.</p>	<p>2.1 DBHko idazkaritzarako irisgarritasun arazoa konpontzea. 2.2 IKT arloan egin beharreko inbertsioak erabakitzea eta gauzatzea. 2.3 Behar pedagogiko berriei begira eremuen egokitasuna aztertzea. 2.4 Eraginkortasun energetikoa lortze bidean gasoliotik gasera pasatzea aztertzea.</p>

